

Aretxagazeta

MURU-ALDE ELKARTEAK 50 URTE BETE DITU



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Bi erretore
100 urtean /08

BERTSOLARITZA
Lehenengo
finalerdia /09

LEINTZ GATZAGA
San Milixanei
errepeaso /10

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 15
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 16
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institutua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murrutxo ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Gurtze Gorría 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETA
Domekan 12:30ean.

ARKARAZO
Zapatuan 11:30ean.

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dute mezarik esango.

OHARRAK

MUS TXAPELKETA MURU-ALDE ELKARTEKO BAZKIDEENDAKO
Muru-Alde elkarteak mus txapelketa antolatu du bazkideendako. Bihar, zapatua, egingo dute, 15:30ean.

EUSKALTEL-EUSKADI TALDEKOAK MURU-ALDEN
Muru-Alde elkartearen 50. urteurrena dela eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Eguenean, azaroak 20, Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldeko arduradunak, Mada-riaga eta Julian Gorospe, eta txirrindulari bi etorriko dira. 19:00etan, Muru-Alde elkartearen egongo dira, eta herritar guztiek har dezakete parte.

IPUIN KONTALARIA LIBURUTEGIAN
Pello Añorga ipuin kontalaria 4 eta 5 urte bitarteko umeendako kontatuko ditu ipuinak eguenean, azaroak 20, 18:00etan, liburutegian.

BAI EUSKAL HERRIARI TALDEA EHNA tramitatzea helburu duen taldea egubakoitzetan batzen da, 19:00etan, udaltxe zaharrean.

'SHIATSU' LANTEGIA
Shiatsu masaje sendagariak zelan eman ikasteko lantegia antolatu du Zainduz Osasun eta Fitness Zentroak. Azaroaren 22an eta 23an egingo dute; zapatuan goiz eta arratsalde eta domekan goizez bakarrik.

LORAMENDIRENAGENDA


ANTZERKIA
Gilkitxaro antzerki taldeak *Elevator* antzezlan aurkeztuko du eguenean, azaroak 20, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Talde bizkaitarra da Gilkitxaro, eta 1993an taularatu zuen lehen lana.

ANTZERKIGINTZA IKASTAROA
Antzerkiaren gaineko ikastaroa egingo dute egubakoitzero 18:00etatik 20:00etara.

ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN

Udal kultura arduradunek prentsa agerraldia

Prentsaurrekoa eman zuten Imanol Aizpurua kultura zinegotziak eta Inma Miguel teknikariak azaroaren 13an. Kirol etxean eta zinemaren egokitze lanak egin zituzten; kirol etxekoek 2,5 milioi pezeta-ko aurrekontua izan zuten eta zinemakoek 9 milioioi. Azken hori urtarrilean zabaldu zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Arpausuak"

Erreka oinez zeharkatzeko jarritako harriak.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- HELDUEN LITERATURA**
- Kilkerren hotsak / Edorta Jimenez
 - El baile de la victoria / Antonio Skármeta
 - El amante albanés / Susana Fortes
 - Un juego de niños / Donna Tartt
 - El código Da Vinci / Dan Brown
 - La comunera / Toti Martínez de Lezea
 - Nos espera la noche / Espido Freire
 - El buen sirviente / Carmen Posadas
 - Mujeres cantando suavemente / Wilhelm Genazino
 - La fuga de todo / Fernando Luis Chivite
 - Mystic river / Dennis Lehane
 - El legado del rey Tsongor / Laurent Gaudé
 - Sesenta semanas en el trópico / Antonio Escohotado
 - Veinte años y un día / Jorge Semprún
 - Veinticuatro horas en la vida de una mujer / Stefan Zweig

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Markel Urzelai
10ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
Ioritz Saez de Gordoa
12an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Markel Saez de Gordoa
12an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Edurne Larrinaga
12an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Xabier Koskorrotza
15ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko eta lagun partetik.



ARETXABALETA
Gorka Etxebarria eta Malen Ruiz de Azua
17an. Zorionak eta muxu bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Izar Mondragon
20an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Gurasoak, Oier, eta lagunak.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak

Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

Lubia
oinetakoak

zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

IBARRA
estankoa

PRENTSA ETA IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia 3. Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Ikusi dozu Julio Medemek euskal gatazkien gaiñien egin dauen pelikulier?




MARIBEL ETXEBERRIA
Langillie



VICENTE MARTIN
Langillie




IRUNE ALVAREZ
Langillie



BEÑAT SALABERRIA
Langillie



JUDIT RUIZ DE MUNAIN
Langillie



ANGEL IRURE
Langillie

Ez dot ondiokan aukerarik euki. Hala eta be, desietan nau ikusteko. Entzun dotenagaittik oso pelikula ona da. Zinien baiño gehixau, etxien DVDien-edo gusturau ikusiko neuke.

Ez dot ikusi. Zinera fateko ez dauket denpora askorik. Bideuen urteten dauenien tau dust kritika moduen oso pelikula gomendagarrixe dala. Jentie pozik dau.


Ez, ez dot ikusi. Egixe esatien, aspaldixen nahiko deskonektaute nau, ez dot pelikula askorik ikusi. Ez dakit ze pelikula dan, ezta zertaz doien be. Hala eta be, iguel ikusi egingo dot.

Bai, ikusi dot eta asko gustau jat. Pelikulan ikuspuntu desberdiñek agerketan die. Neure ustez, horreik iritzi danok batuaz autorie ondorixo batzutura heltzen da.

Ez, ez dot ikusi, baiñe intenziñue badauket. Lagun askok, gaiñera, ikusi daue eta gustau jakue. Hala eta be, euskaldunendako ez dakarrela ezer barririk entzun dot.

Ez, ondiokan ez, baiñe laister ikusiko dot. Hala eta be, pelikula horren gaiñien BBC katiek egindako erreportaje bat ikusi dot. Uste dot euskaldunondako ez dakarrela ezer barririk.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK BEHAR BEHARREZKO APARKALEKUA Ez dut esango Aozaratan, Otalora jauregi parean egin berri duten aparkalekua nire gustukoa denik. Hala ere, badakit egunero-egunero hara joaten diren bisitariak asko eskertuko dutela autoa aparkatzeko leku berria. Autobusek esaterako, hemendik aurrera, inongo arriskurik eragin barik ibiliko dira han. Txaloak, beraz, behar beharrezko aparkalekuari. /A.L.

ETABARRUAN...

URTEURRENA /04

ELKARRIZKETA /05

KIROLAK /06

Muru-Alde 50 urte

Muru-Alde elkarteak 50 urte bete ditu aurten. Hori dela eta hainbat ekintza antolatu dituzte.

Pausoka Haur Eskola

Pausoka Haur Eskolako arduradunek gainbegiratua egin diote 13 urteko ibilbideari.

Emakumezkoen futbol taldea

Futbol 11ko UDA/Almen emakumezkoen taldea liga polita egiten dabil. Hirugarren daude.

ASTEKODATUA

O

TXARTEL IKUSI DITU UDA/ALMEN NESKEN TALDEAK

Liga hasi zenetik bederatzi partidid jokatu dituzte futbol 11ko UDA/Almen taldeko neskek. Eta harrigarria bada ere, oraindik epaileek ez diete txartel bakar bat ere erakutsi.


BESTEKEESANA

“Topaketa honekin amets bat bete dugu. Bagenekien kantu inprobisazioaren inguruko komunikazio azpiegitura bat sortzekotan euskaldunok lotura nagusia izango ginela, eta hipotesi hori bete egin da, beharbada zoritxarrez. Kongresuan agerian gelditu da mugimendurik antolatuena bertsoaritzarena dela; izan ere, hemendik kanpora ez dago erreferentzia handiegirik, ez antolaketan ez eta estrategian.

Guretzako datu garrantzitsu bat da atzo John Foleyk emandakoa. Kongresua zer moduz ikusi zuen galdegin genion, eta hark esan zuen bizitza osoa kongresuz kongresu ibili ondoren hauxe izan dela sekula ikusi duen onena. Bai publikoari emandako eskaintzari dagokionez, bai eta antolaketari dagokionez.

JON SARASUA
‘El Diario Vasco’/03-11-10

HERRITARRENBERBAK/ Fernando Berrizbeitia



Berde, Marroia, Arrosa

Egun hauetan “pase” arraroa eduki dugu. Izan ere, gure zerutik, usoak, birigarroak edo antzaren partez, sekulako zarata ateratzen zuten helikoptero tzar berdeak ikusi dira. Eta berehala jakin dugu nola ibili diren lurralde ezberdinetan beraien “entrenamenduak” egiten. “Hemen gaude”, eta “nahi dugunean ere hemen egongo” gara errepikakor bat uleretzen nuen nik helikoptero horien motorearen zaratarekin.

Eta horren aurreran bakoitzak bere hausnarketa egingo zuen. Nik uste dut inozo samarrak garela, pentsatzen dugulako begi-bistan ez dagoena ez dela jada existitzen. Intsumisioaren mugimenduari esker soldaduska bertan behera geratu zenetik, ematen zuen militarrek gure bizitzatik alde eginda zeudela, iraganaren amets txar bat izatera pasatu direla. Baina nahikoa izan da aste hau berriro ere argi geratzeko zeinenak diren lurralde hauek. Berde gehiegi udazken baterako.

Berde guzti horren atzean, noski, marroia nabarmentzen da: kontuz esaten duzunarekin, begiratu zeinekin zabiltzan, ez niri emigrante esan, ea zer eztabaidatzen duzuen... Marroia manipulazioa, mehatxu eta erasoak, zigorgabetasun guztiarekin esaten diren gezurrak, argudio eta benetako elkarrizketaren falta larria. Marroi gehiegi herri txiki batentzat.

Baina, zorionez, guzti hau gozotzeko, arrosa kolorearen presentzia ere izan dugu. Izan ere, berde samar zegoen igela printze bihurtu da maitasuneko muxu bati esker. Eta, ondorioz, erresuman berriro ere denok poz pozik egongo gara, gutxienez datozen hilabete hauetan. Eta erresumako mezulariek behin eta berriro gogoraraziko digute zoriontsu izan behar hori, ahal bada gaitetik pasatuaz ezkontza (eta ezkontideen etxea, eta beraien umeen *dototisak*, eta ume hauen umeen unibertsitate ikasketak...) denon artean pagatuko ditugula. Berde, marroia eta arrosa: ah ze bandera zatarral!

“Nahikoa izan da aste hau berriro ere argi geratzeko zeinenak diren lurralde hauek. Berde gehiegi udazken baterako”



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Zorionak
eta aurrera

Zorionak emuten hasi biher naz; izen be, Alberto Iñurrategik sarixe jaso dau astien Kanada aldien *Hire Himalaya* lanagattik.

Aspaldixen han eta hemen jaso dattu sarixek; hala eta be sari haundixena datorren urtien jasoko dau semetxue izeten dauenien.

Muru-Alde elkartiei be zorionak emun biher dutzegu aurten, 50 urte bete dattu-eta. Gora behera asko izengo zittuzten, baiñe hortxe jarraitu daue bazkideiek, eta hasierako 26tik 150 izetera pasau die. Ekitaldi ugeri antolatu dittue biher dan moduen ospaketako urteurrena; Euskaltel-Euskadi txirindulari taldeko kidiek ikusteko, gaiñera, ez dau bazkide izen biherrik Muru-Aldera gerturetu eta nahikue. Hortaz, zorionak danoi, eta aurrera jarraitu!

URTEURRENA/ 26 bazkidek sortu zuten Muru-Alde; gaur egun, 150 bazkide daude eta emakumeak ere sar daitezke

Muru-Alde elkarte gastronomikoak, herriko elkarte zaharrenak, 50 urte bete ditu aurten

MIRARI ALTUBE

50 urte bete ditu aurtengo udan Muru-Alde elkarte gastronomikoak. Hori horrela, hainbat ekitaldi antolatu dituzte; egunean, esaterako, Euskaltel-Euskadi txirindulari taldeko kideak izango dira gurean. Ospakizun garrantzitsuena, baina, azaroaren 22an egingo dute.

Herriko elkarte gastronomiko zaharrenak, Muru-Aldek, 50 urte bete zituen udan. Gorabehera ugari izan ditu urte horietan guztietan, tartean hiru egoitza; baina hor dirau, eta indartsu, gainera.

ELKARTEAREN SORRERA

Juan Luis Izagirrek eta Jose Irizarrek izan zuten Muru-Alde elkarte sortzeko burutazioa. 1953ko udaberria zen, eta Ilargi lantegiko behealdean, Asensio dendaren atzealdean, jarri zuten lehen egoitza. 26 lagunek eman zuten izena hasieran, baina diru falta zela eta, bazkide gehiago hartu behar izan zituzten, eta 40 ziren udan. 500 pezeta jarri zituzten guztiek sartzeko. Hilario Errasti izan zen lehenengo presidentea.

Uztailaren bukaera alderako gertatu zuten egoitza, eta hala, San Inazio hautatu zuten elkarte zaindaria; orduantxe egin zuten inaugurazio ekitaldia. Horren harira, Mitarte kalean zegoen egoitza hartatik Murugain mendia ikusten zuten, eta bazkideen artean berba egin ostean, Muru-Alde izena jarri zioten.

Elkartearen estatutuak aza-



Muru-Alde elkartearen azken egoitza, Mitarte kalean dagoena, inauguratu zutenean egindako ekitaldia, 1988an.

roan onartu zizkieten. Horrela, bada, elkarte abian zegoen, eta ondo funtziona zezan Barne Arautegia egin zuten. Haren arabera, bazkide ez zirenak eta emakumeak urtean hiru egunean bakarrik sar zitezkeen: Eguberri egunean, San Inazio egunean eta Andramaixa egunean.

EGOITZA ALDAKETA

1967an elkartearen egoitza aldatu egin zuten; Basabe bidean zegoen Pagaldai denda gainaldean, hau da, Olandixo baserri alboan jarri zuten. Lau urte geroago, 1971n, emakumeei baimena eman zieten urteko edozein egunetan sartzeko; hori bai, telebista gela-

ra. 1988an berriro aldatu zuten elkartearen egoitza; Mitarte kalea itzuli ziren, batzuk pena handiarekin. Urte batetik bestera bazkide kopuruak gora egin du, eta 2003az geroztik emakumeak ere onartzen dituzte. Gaur egun 150 bazkide daude, eta zortzi erretiratutako bazkideak.

Jon Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Martin
erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

J.J. IRURE
ITURBINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

MAITE
ileapaindegia


Sarasate • 943 79 59 05
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

Iber

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- ✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

ELKARRIZKETA

PAUSOKA HAUR ESKOLAKO ARDURADUNAK

“Umeeekin lan egitea dugu gustuko, eta ezinbestekoa da gurasoen konplizitatea”

M.A.

Pausoka Haur Eskolako Guraso Elkarteak batzar orokorra egin zuen eguaz-tenean. Hasi berri den ikasturtea antolatzeko izan zen. Pausokak, gainera, 13 urte bete ditu aurten, eta urtebete egin du eraikin berrian.

Zelan sortu zenuten Pausoka Haur Eskola?

Lau lagunen artean sortu genuen 1990ean, eta zortzi umekin hasi ginen lanean. Orain 10 hezitzaile eta sukaldari bat gaude eta 74 ume dauzkagu.

Urtebete egin duzue eraikin berrian. Zer moduz?

Oso ondo. Belorrieta kalean dagoen eraikin honek lehengoaren aldean askoz leku zabalagoa dauka, eta horrek hezkuntza kalitatearen hobekuntza ekarri du; izan ere, beste metodologia batzuk aurrera eramateko aukera eman digu. Ez hori bakarrik, izena emandako ume gehientsuenak hartu ahal izan ditugu; sehaska gelara zihozten hirurendako izan ezik, gainerako guztiendako izan dugu lekua.

Izan ere, gura beste ume ezin dituzue hartu, ez?

Ez, horixe. Eusko Jaurlaritzak jartzen ditu kopuruak: 0 eta 1 urte arteko zortzi ume egon daitezke hezitzaile bakoitzeko, eta gurean bi talde daude; 1 eta 2 urte arteko 13 ume hezitzaileko eta gurean 12ko hiru talde daude; 2 eta 3 urte arterako 17 ume onartzen dituzte, guk 22 ditugunez bi talde ditugu. Guztira 74 ume.

Umeen aparkalekua ala hezi-lekua da Pausoka?

Hezi-lekua, jakina. 0-3 adin tar- tea oso garrantzitsua da garapenerako, urte hauetan gertatzen diren aldaketak edo aurrerapenak bizitzako edozein garaitakoak baino ugariagoak dira-eta: ibiltzen ikasi, berba egiten, txiza eta kaka egiten... Horrela, bada, hezkuntza programa eta estimulazio egokiar- en bidez ahalmen guztiak lantzen lagun diezaiekegu.



Hortaz, umeeekin zein behar dituzte 0 eta 3 urte artean?

Afektibitateari dagozkion beharrak dira garrantzitsuenak, eta horrekin batera fisiologi arlokoak; bi horiek beteta izanez gero beste arlo guztiak lantzeko gertu egoten dira umeak.

0-3 adin tarterako Eusko Jaurlaritzak hasita zegoen zerbait pentsatzen. Zelan dago kontu hori?

Ofizialki ez dugu ezer jaso, eta erakundeek guk baino gehiago jakingo dute. Dakiguna komunikabideek esandakoa da, eta Eudel eta Eusko Jaurlaritzak ezin kon- ponduta ei dabilta.

Zuek umeeekin lanean hasi zinenetik gaur egunera aldaketa asko egon dira?

Bai, izugarri. Geure egoera

asko aldatu da: ez genuen espe- rientziarik, baina denetik egiten genuen... Orain, urteek erakusten duten eskola daukagu. Haur esko- la erabat ezezaguna zen orduan, eta guran konfiantza izan zuten gurasoei eskerrak eman gura dizkiegu. Haiei esker herrian erabat barneratuta dago orain Pausoka.

Zeintzuk dira Guraso Elkartearen ardurak?

Bitartekari lanak egitea: gura- soen, erakundeen eta eskolaren artean. Eskolan egiten ditugun ekintza bereziak ere antolatzen ditu, eta babesa ematen digu.

Zeinekin da zailagoa lan egitea umeeekin edo gurasoe- kin?

Guk umeeekin lan egitea dugu gustuko baina ezinbestekoa da gurasoen konplizitatea.

Abian jarri dute XV. Loramendi Literatura Lehiaketa

M.A.

XV. Loramendi Literatura Lehiaketa antolatu du Loramendi EEEK urtero legez. Lehen Hez- kuntzako eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketa da; aur- ten, ostera, Batxilergokoek ere badute parte hartzeko aukera.

Aste honetan bertan eman dute Loramendi EEEKo arduradunek XV. Loramendi Literatura Lehiaketa- ren berri ikastetxeetan. Hemendik eta abenduaren 18a bitartean Aretxabaletako gazte- txoek badute zeregina.

BALDINTZA OROKORRAK

Aretxabaletan bizi diren edo ikas- ten dabilzan ikasleei egiten die- te dei Loramendi EEEKo kideek. Lan guztiak euskaraz egin behar- ko dituzte eta argitaratu bakoak izan beharko dute. Lan bakarra aurkez dezakete, gainera. Ezize- narekin sinatuta eman behar dituzte lanok Loramendi EEn, eta barruan, izen-abizenak dituen gutun-azala sartu beharko dute parte-hartzaileek.

IPUINA ETA POESIA

Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. ziklo- etan dabilzan ikasleek ipuin eta poesia lehiaketetan hartu ahal

izango dute parte. Gai libreza izan- go dute biek eta poesiak luzera ere bai; ipuinaren kasuan, orri batetik hiru orrira bitarteko luze- ra izan beharko du.

DBH-KO ETA BATXILERGOKO IKASLEAK

Grabaketa lehiaketari dagokio- nez, DBHko ikasleei zuzendu diete. Lanbidearen inguruko kontuak, pasadizo zaharrak... grabatu beharko dizkiete herri- ko edadetu, eta 30 minutuko grabaketak izan beharko dute. Aurten, gainera, audio zintare- kin batera grabaketaren gidoia eskatuko diete parte-hartzaileei antolatzaileek.

Komikien, amodiozko gutu- nen, e-mail bidezko hitzorduen eta piropo lehiaketetan DBHko ikasleek zein Batxilergokoek har dezakete parte. Komikiari dago- kionez, 4 eta 12 biñeta artean aur- keztu beharko dira. Amodiozko gutunen kasuan, ostera, bi orri- ko luzera izan beharko dute gutu- nek, eta e-mail bidezko hitzor- duak loramendi@topagunea.com helbidera bidali beharko dira. Azken lehiaketa horrek iaz ez zuen arrakasta handirik izan, baina aurten bestelako emaitza espero dute.

Abenduaren 18a bitartean aurkez daitezke lanok.

LABUR

Mozio bi aurkeztu eta onartu zituzten astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran

Astelehenean ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak. Hain- bat gai izan zituzten eztabaidagai, tartean mozio bi. Aralar alder- diak aurkeztu zituen biak; lehenengoak gay eta lesbianek ume- ak adoptatzeko duten eskubidea aipatzen zuen eta bigarrenak Andoaingo Kultur Parkean izandako atxiloketak gaitzetsi. PPko Silvia Camporro zinegotzia izan ezik gainerakoak alde agertu ziren.

Bai Euskal Herriari taldeak atxikimendu kanpaina jarriko du abian gaur, egubakoitza

Euskal naziotasunaren aitortpena aldarrikatu eta lortzeko lane- an hasi berri den Bai Euskal Herriari taldeak atxikimendu kan- paina egingo du herrian, gaur hasita. Herriko eragile guztiak par- te har dezaten gura dute: gizarte eragile, politiko, elkarte... eta hori azaltzeko eskutitzak bidaliko dizkiete. Kanpainaren helbu- rua hainbat sentsibilitatetako elkarten konpromisoa eta par- taidetza lortzea da. Taldea, gainera, oraindik zabalik dago.

Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

Arotz lanetan behar duzun guztia

AZKARATE AROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

FUTBOLA

Liga bikaina egiten ibili arren, nesken futbol taldea entrenatzaile barik dago

Emakumezkoen futbol 11 ligan hirugarren postuan dago gaur egun UDA/Almen taldea

AMAGOIA LASAGABASTER

Jardunaldi bi besterik ez zaie falta UDA/Almen futbol 11 taldekoei ligako lehenengo txanda amaitzeko. Aurten sekula baino hobeto dabilta. Partidu gehienak irabazita hirugarren daude ligan. Hala ere, badute arazotxo bat: oraindik ez dute entrenatzailearik aurkitu.

UDA/Almen futbol taldea 18 neska osatzen dute; 22 urte ditu jokari zaharrenak eta 15 gazteenak. Astean bitan entrenatzen dira futbol 8 ligan dabiltzan beste neska batzuekin batera. Taldea orain sei bat urte osatu zuten, baina aurten da lehenengo aldia ligan aurretik dabiltzala. Izan ere, Lagun Onak eta Anaitasuna bakarrik dituzte ligako sailkapenean aurretik. Horiek biak azken denboraldian goiko mailatik jaitsitako taldeak dira, eta hori ezagun dela diote UDA/Almen taldeko neskek. Gainera, beste abantaila bat ere badute: talde horiek biek entrenatzaileak dituzte; UDA/Almen futbol 11 taldea, berriz, guraso talde batek zuzentzen du. Emaizak ikusita ez dute gaizki egiten, bai



Taldeko giroa paregabea dela diote jokalariek eta hori nabaria da partiduetan .

na entrenatzaile baten beharra dutela diote jokalariek. Arazoak arazo, aurtengo emakumezkoen ligan gogor dabilta UDA/Almen-goak. Orain arte bederatzi partidu jokatu dituzte. Horietatik sei irabazi egin dituzte, bi galdu eta bat berdindu.

HELBURUAK

Taldeak badaki mailaz igotzea zaila izango dela; hala, gurago dute kopa jokatu. Bestalde, oraindik epaileek ez diete txartel bakar bat ere erakutsi; horrenbestez, iaz bezala, aurten ere joko garbiaren saria irabazteko bidean daude.

FUTBOLA

Banakakoarekin amaitu zen UDA eta Mondra futbol taldeen arteko partidua

Ez zuten gol aukera askorik izan, eta azkenean, banakako berdinetarekin amaitu zen UDAk Mondraren aurka jokaturako partidua. Emaiz horri esker, UDAk 9 puntu ditu eta 17. postuan dago sailkapen orokorrean. Oraingo domekan, bestalde, Urolaren aurka neurtuko dituzte indarrak Igor Gordobilen mutilek.

MENDIA

Alberto Iñurrategiren 'Hire Himalaya' lanak saria jaso du Kanadako zinema jaialdi baten

Alberto Iñurrategi Kanadako Banff Mountain nazioarteko zinema jaialdian izan zen pasa den asteburuan. *Hire Himalaya* ikus-entzunezko lana aurkeztu zuen Albertok eta epaimahaiaren sari berezia jaso zuen. Azaroaren 1etik 9ra bitartean egin zuten Banff Mountain jaialdian 38 herrialdeko 300 filmek hartu zuten parte.

PARTIDUAK

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA-Urola
Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA/Almen-Añorga

Gazteak. Ohorezko liga.

Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Beloki

Gazteak.

Egubakoitza. 20:00. Itugorin.

Aretxab.-Oskarbi (Elgeta)

Nagusiak.

Egubakoitza. 21:00. Itugorin.

FUTBOLA

Mondra 1 UDA 1

Preferentea.

Ordizi 4 UDA 1

Gazteak. Ohorezko liga.

UDA 1 Behobia 3

Lehenengo mailako gazteak.

UDA/Almen 0 Urola 2

Lehenengo mailako kadeteak.

Bergara 1 UDA/Almen 2

Bigarren mailako kadeteak.

Almen/UDA 5 Urola 1

Emakumezkoen liga.

Zarautz 5 Almen/UDA 0

Emakumezkoak. Futbol 8.

Elgoibar 2 UDA 2

Infantilak. Ohorezko liga.

PILOTA

Eibar 22 Aretxab. 12

Bigarren mailako nagusiak.


Aretxab. 11 Beloki 22

Lehenengo mailako nagusiak.

Tarifa pertsonalizatuak

Zatoz gure bulegoetara eta informa zaitez

- Aseguruak
- Finantzaketa
- Renting
- Balio erantsien lantegiak



MAPFRE
AUTOMÓVILES

Mapfre
Errekabarren 3
943 77 11 76
ARETXABAETA

Mapfre
Garibai etorbidea 16
ARRASATE
943 79 89 00
Arrasate pasealekua 37
ARRASATE
943 79 71 31

Mapfre
Simon Arrieta 3
943 76 18 80
BERGARA

Altube zerbitzuak-Mapfre
Portu 5
943 78 12 65
ONATI

MUNDUTARRAKARETXABALETAN

TERE MORENO BERNAL

45 URTE / EDADETUEN ZAINZAILEA / CADIZ

“Aldaketa handia izan zen, baina orain ez nuke aldatuko nire bizimodua”

MIRARI ALTUBE

Orain 14 urte etorri zen Tere Moreno Cadizko Puerto de Santa Maria herritik Aretxabaletara. Andaluziako herri handia atzean utzi eta Euskal Herriko gure herri txikira etorri zitzaigun. “Herri handiak ditut gogoko eta Aretxabaleta oso txikia iruditu zitzaidan hasieran”, dio Terek. Nora eta baserrira joan zen, gainera, bizi izatera, Goroeta auzoko baserri batera: “Aldaketa handia izan zen, egia da, baina dagoeneko egin naiz hemengo bizimodura, eta orain, ez nuke ezergatik aldatuko”. Tere, baina, ez zen bakarrik etorri, 11 urteko semea ekarri zuen berarekin: “Segituan egin zituen lagunak Aretxabaletan, eta euskararekin zailtasun batzuk dituen arren, dagoeneko moldatzen da”.

Ohitura ezberdinak ditugu andaluziarrek eta euskaldunok, argi dago, eta Terek ere ohitura berriak ikasi behar izan zituen: “Koadriletan egiten da hemen bizimodua, eta horrek atentzioa eman zidan; Cadizen bikoteari garrantzi han-

“Koadriletan egiten da hemen bizimodua, eta horrek atentzioa eman zidan”

diagoa ematen diote”. Andaluziako berba egiteko era ez du galdu oraindik, eta euskaraz zerbait ulertzen duen arren, oso zaila dela dio: “Ulertu zerbait ulertzen dut, baina oso bizkor egiten duzue berba eta azkenean galdu egiten naiz. Esaten da andaluziarrok egiten dugula berba bizkor, baina zuek ere ez zarete atzean geratzen”.

Gurera etorri zenean ez zekiela oso ondo nora zetorren aitortu digu Terek: “Etorrita nengoen eta zerbait ezagutzen nuen, baina bizi izatera etortzea beste kontu bat izan zen. Hala ere, orain ez nuke aldatuko nire bizimodua; ez, horixe! Cadiz oporretan joateko eta senideak ikusteko oso ondo dago, baina egun batzuetarako”.



HURRETIK



Aitziber Mendigain

Udaleko hirigintza teknikarixe

Lizartzarra da, 25 urte ditu eta gure herrixen bizi da azken hillebetiotan. Laister herriko txoko danen barri euki-ko dau, Jose Mari Segoviakin batera hirigintza teknikarixe da-eta.

Gure herrire etorri aurretik nun egin dozu lan?

Leku askotan: arkitektuen estudixo batzutan, inmobiliariaren baten, obretako direktziñuek erueten, Irungo Udalian...

Orduen, badauketzu udaleko lanen barri, ez?

Bai, baiñe denpora laburrien iblli nitzen, hiru edo lau hillebetien.

Gustora zabitz gure herriko udaletxien lanien?

Bai. Hamengo langilliek jatorrak die eta oso ondo hartu naue.

Zeintzuk izango die zure eginbiherrak?

Obra txikixek eruetiez, oztopo arkitektonikuez... eta ingurumenekin lotuteko kontuez arduratuko naz; hau da, Tokiko Agenda 21.

Agenda 21en kontuekin ze egitteko asmue dauketzu?

Ze egin zinegotzixek erabaki biher dau, eta gero bixon artien pentsauko dogu zelan aplikau Aretxabaletan.

Herrixe apur bat ezagutu dozu; zein txoko elegiduko zeuke?

Lankide batekin auzuek ikusten fan nitzen, eta Urkulu ingurue asko gustau jaten. Atentziñue emun eusten, gaiñera, auzo bakotzak bere elixie eta kanposantue eukittie.

Bizi izeteko, herri txikiko lasaittasune ala haundiko mugimendue?

Herri haundi zalie naz; beste bentaja batzuk eukitten dittue. Tolosa elegiduko nauke.

Ze egiten dozu denpora librien? Aerobikera faten hasi naz.

M.A.

NIREBIDAIAHURA / Katalin Antxia

Birmingham (Britainia Handia) / 2003ko uda

Hamar egun egin zituen Katalin Antxiak Britainia Handiko Birmingham hirian, ekaina eta uztaila bitartean. Lagun bat ikustera joan zen; lagun hark, baina, ez zuen oporrik eta harekin batera eskolara joatea erabaki zuen.

13 eta 18 urte bitarteko 1.000 ikasle inguruko eskola da Birminghamgo Arthur Terry School. Ingalaterrako es-

kolek eta hemengoek ez daukate zerikusirik; hori dio, behintzat, Katalinek: “Uniformearekin joaten ziren eskolara: gorbata eta gona neskek eta prakak mutilek. Irakaslea gelan sartzerakoan zutik jartzen ginen guztiok, eta zuzendaria albotik pasatzerakoan zutik jarrita agurtu behar genuen”. Hemengo eskoletan ez bezala, ikasleek ez zeukaten gela bat euren dako; hortaz, ikasgaiz aldatzerakoan gelaz ere aldatu egin behar izaten zuten, traste guztiak aldean hartuta. “Atsedendian ez zieten futboleko jokatzeko zuten, eta zapatilak ezkutuan jantzita egiten zuten”, dio Katalinek. 08:00etatik 15:30era izaten zituzten eskolak, eta bazkaldu ere bertan egiten zuten: “Sandwich txiki bat bakarrik jaten genuen ordu erdiko tartean”.


Eskolan oso zintzoak izan arren, eskolaz kanpo guztiz desberdinak ei dira: “Irakaslea gelatik atera orduko izugarriko zalaparta sortzen zuten gelan; baloi bat atera eta futboleko hasten ziren”.

Oso ondo hartu zuten Katalin lagun berriek; guztiak zekiten zein zen eta nongoa zen iritsi orduko: “Euskalduna nintzela jakiterakoan oso ondo hartzen ninduten, eta gure kultura eta hizkuntza gordetzeko esaten zidaten. Gure sukaldaritza modukorik inon ez dagoela esaten zidaten, baita oso eskuzabalak garela ere”. Lagun asko eta onak eginda itzuli zen Katalin Birminghamdik.

M.A.



Arthur Terry School eskolako ikasleak eta eurekin Katalin Antxia.



“Uniformea jantzita joaten dira ikasle guztiak eskolara”

“Irakaslea gelan sartzerakoan zutik jartzen ginen guztiok”

KiXkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak



Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

Lasai

Mirian Manteca
masajista

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
- Kraneala
- Estrukturala
- Funtzionala
- Lotura muskularrak

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaial - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 14a / 145. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Eskoriatzako Bolibar elizatean azkeneko 100 urteotan apaiz bi bakarrik egon dira

AINTZANE GARDOKI

100 urtean bi erretore bakarrik egon direlako ospakizun berezia egin zuten joan den domekan, hilak 9, Bolibarren. 1903tik gaur egun arte, hau da, azkeneko 100 urteotan bi apaiz bakarrik egon dira, eta elizaren historian seguruenik ez ei da inoiz horrelako beste kasurik gertatu.

On Migel Alberdi apaiz arrasatearra 1903an heldu zen Bolibar elizatera. Bolibarko kontu ugari bere gain hartu zituen 1945. urte arte. Alberdi arrasatearrak utzitako lekua On Kruz Abarrategi plaentziarrak hartu zuen. On Kruz, esan bezala, 1945ean heldu zen Bolibarrera, eta geroztik bertan bizi da. 86 urte ditu erretore plaentziarrak baina oraindik gogor dabil bere zereginetan.

EZ DA BATERE OHIKOA

Felix Azurmendi bikario nagusiak esan zuen meza, eta Angel Ipiña apaiza eta On Kruz Abarrategi Bolibarko erretorea izan zituen aldarean lagun joan den domekan. Auzotar ugari eta beste herri batzuetatik etorritako lagun asko elkartu ziren elizki-



OLAIA MONDRAGON.

Herritar asko batu ziren Felix Azurmendi bikario nagusiak, Angel Ipiñak eta On Kruz Abarrategi esandako mezan.

zunean. Giro ederrean eguerdia elkarrekin pasatu zuten herritarrek.

Guztien ahotan gai berbera zegoen, alegia, ez dela batere ohi-

koa 100 urtean erretore bi bakarrik izatea auzoan. "2.000 urte dituen elizaren historian ez dakit inoiz horrelakorik gertatuko zen", zioen batek baino gehiagok

joan den domekan Bolibarren. "Ni bat nator horrekin. Urtetan atzera eginda ez dugu horrelako beste kasurik aurkitu, behintzat", esan digu Angel Ipiña apaizak.

*On Migel apaiz
arrasatearra
1903an heldu zen
Bolibar
elizatera*

*On Kruz Abarrategi
apaiza 1945ean
heldu zen
Bolibarrera eta
geroztik han bizi da*

*Giro ederrean
eguerdia
elkarrekin
pasatu zuten
herritarrek*



Gurasoak euskaraz jolasean eta kantuan ikasten

Urtxintxa aisialdi eskolako begiraleen eskutik 27 lagun ari dira euskarazko kantu eta jolasak ikasten. Euskara Sailak orain dela hiru urte eskaini zuen lehenengoz ikastaroa eta izan duen arrakasta kontuan hartuta urtero antolatatu du ikastaroa. Gurasoei seme-alabekin euskaraz jolas egin eta abesteko baliabideak ematea du helburu nagusi ikastaroak. Hiru zapatutan jasoko dituzte gurasook eskolak. Oso gustura egin zuten lehenengo saioa. Azkeneko saioan umeekin festa egingo dute.

LABUR

Aurten ere badatoz Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak

Azaroaren 29an Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Eskoriatzako kiroldagian izango dira. Aurten ere, hutsik egin barik, Eskoriatzan egingo dute euren azkeneko ikuskizunaren estreinaldia, azkeneko urteotan egin duten moduan.

Hori dela eta, Axtroki Euskara Elkarteak bazkideei, herriko ikastetxei eta egun horretan laguntza eman gura duten herritar guztiei dei egin diete. Azaroaren 18an bilera egingo dute, 18:30ean, kultura etxean, antolakuntza lanak banatzeko.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaltzatea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kiról etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

SENDOTZAKO SAKRAMENTU BILERA

Konfirmazioa egin gura dutenek bilera egingo dute gaur, 18:30ean, Itarte etxean.

ATE IREKIAK ARIZMENDI IKASTOLAN

Bihar, zapatua, hilak 15, Almen gunean Patxin eta Potxin pailazoen eskainiko duten ikuskizunaz gain, ipuin kontaketa musikatu, eskulan lantegiak, eta beste egingo dira. Hitzordua 16:00etatik 18:30era.

LUIS EZEIZAKO HAINBAT IKASLE 'BETIZU' SAIOAN



LUIS EZEIZA

Grabaketa bukatu ondoren argazkia atera zuten Xabier Mendia aurkezlearekin.

'Betizu' saioko lehiaketa batean hartu zuten parte Luis Ezeizako 12 ikaslek

AMAGOIA LASAGABASTER

Luis Ezeizako hainbat ikaslek telebistako trikimailu guztiak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten duela gutxi. ETBko *Betizu* programan parte hartzeko gonbidapena jaso zuten urriaren amaieran eta ez zuten aukera galdu. Hala, azaroaren 4an, K-2000 grabaketa-estudiotara joan ziren.

Hori da osasuna izeneko lehiaketa batean hartu zuten parte. 11 eta 12 urte dituzten ikasleak joan ziren; 12 laguneko taldetxo bat, hain justu. Bikoteak osatu eta hainbat programa grabatu zituzten egun bakarrean. Goizetik ilun-

karara bitartean ibili ziren jo eta su lanean. Hala ere, telebistako saio bat barrutik nola egiten den ikusteko tartea ere hartu zuten. Gainera, estudioan, Txetxu Ugalde, Yolanda Altzola eta beste hainbat aurkezlearekin egin zuten topo.

Grabatutako lehiaketa zein egunetan emango duten zehaztu barik egon arren, ETBk abenduan izango dela aurreratu die Luis Ezeizakoei. Horrez gain, urriaren 24an eskolan egindako beste grabazio bat ere eskainiko du Euskal Telebistak. Egun hartan ere, *Betizu* programaren barruan eskainiko duten tarte baterako grabaketa egin zuten.

LABUR

Herriko azterketa topografikoa egiteko bederatzi enpresak eman dute izena

Eskoriatzako Udalak lehiaketa publikoa abiarazi du, 1997an egindako azterketa topografikoari geroztik izan diren berrikuntzak eransteko. Horrekin batera Udaleko zerbitzuen sarea digitalizatu gura du Eskoriatzako Udalak. Eta, epea amaituta, bederatzi enpresak erantzun diote deialdiari. Datorren astelehenean, hilak 17, Hirigintza batzordeak jasotako proposamenak aztertuko ditu eta 15 egun barru lanak adjudikatuko ditu alkateak. Datozen sei hilabeteetan, gutxi gorabehera, lanek amaituta egon beharko dute.



Gipuzkoako Bertso Txapelketa domekan


Datorren domekan, hilak 16, Gipuzkoako Bertso Txapelketa lehenengo finalerdia jokatu da Eskoriatzako kiroldegian, 17:00etan. Irailaren 26an 71 bertsolari hasi ziren lehiari. Eskoriatzan, domekan, Maddalen Lujanbiok, Aitor Mendiluzek, Estitxu Eizagirrek, Arkatiz Goiketxeak, Bixente Gorostidiek eta Amaia Agirrek jardungo dute bertsoetan.



EDURNE

ESTETIKA
ZENTROA

Informa zaituz!



Ile gehiegi eta gainera ile bihurria?
Depil Plus sistemarekin zure arazoa
ordutan konponduko dugu...

Aranburuzabala 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA

NAIRA
Taberna


Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21




FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Gastafadul suzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



**ENRIKE
MAZMELA
BOLINAGA**
HORTZ
KLINIKA

Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza


Giro polita eta jende ugari aurtengo Leintz Gatzagako San Milixanetan

AINTZANE GARDOKI

Eguraldi paregabea egin zuen joan den domekan Gatzagan. Jende ugari hurbildu zen bertara. Artisauek gogotik egin zuten lan eta produktu ugari saldu zituela esan zigun batek baino gehiagok. Egubakoitz eguerdian *Gatzaga 2003* diaporamaren egileak eta ibarreko hainbat lagun egon ziren diaporamaren lehen emanaldian. Zapatuan, berriz, herritarren txanda izan zen, eta gatzagar askok ikusi zuten diaporama. Sorginak emakume taldea ere pozik dago bai egubakoitzean bai domekan lortutako emaitzekin. ARGAZKIAK: A. GARDOKI.

Joan den domekan egin zuen eguraldi paregabeak jende asko ekarri zuen Leintz Gatzagara

Herritarren txanda izan zen zapatuan, eta gatzagar askok ikusi zuten 'Gatzaga 2003' diaporama



Gatzagako emakumeek ondo harrotutako taloak banatu dituzte aurten ere.



Gatzaga 2003 diaporamaren egileak egubakoitzean Gatzagan egon ziren.



Gatzagako trikitilariek giroa alaitu zuten San Milixan azokan.



17 artisauek egon ziren euren lanak erakusten; frontoiaren barrualdean batzuk eta kanpoan beste batzuk.




Emakumeek egindako talo guztiak jan zituzten ibarretik Gatzagara joandako lagunek.



Artisauek Goiena Tebistari ere kontatu zizkioten kontatzekoak.



Sendabelarren gaineko erakusketan jende asko ibili zen domekan.




Gatza zelakoa den hur-hurretik ikusi zuten bisitariek, museoan.



Jose Arana 21ean gaude berriro!

Tel. 943 714 397 Faxa: 943 715 012 ESKORIATZA


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA


SURKEKO "Q" SARIA
KUDEAKETARRI
KALITATEARI

laster

Debagoiena
esku-eskura

Goiena.net

Debagoieneko Interneteko ataria

zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

GOYARAN ERRETEGJA



Eguneko menua

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

URBALTZ
TABERNA



Mitarte 21, behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel. 943 79 94 15

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaikea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

ZARAIA
taberna

Goizko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

IBARRA
JATETXEA

Menua
eta
karta

Araba ibilbidea 29
ARETXABALETA
943 79 18 03



Mitartegarakai



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

EZKUTU
TABERNA



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

BAR
GVREA
JATETXEA

EGUNEKO MENUK
OTARTEKORAK ETX
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • Tel. 943 792064
ARETXABALETA



BASABE
Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

Aretz
taberna



ORDUTEGIA:
Astelehenerik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA